
Kalamuan THCa eta kanabidiola neurtzeko teknika merke eta azkar bat

Kalamuan THCa eta kanabidiola neurtzeko infragorri hurbileko espektroskopia teknika merkea eta azkarra dela erakutsi dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikertzaileek.



ARG.: Herbal Hemp/Pixabay.

Kompolti kalamu-landareekin egin dute lan ikertzaileek. Kalamu industrialaren barietate bat da, eta psikotropikoen kantitate txikia du (hala nola THCa), handia, aldiz, psikotropikoa ez den beste osagai batena, kanabidiolarena (CBD). Nahiz eta barietate hori baimenduta egon, egiaztatu behar da uztak THC-maila baxuak dituela. Kromatografia likidoa erabiltzen da horretarako. Arazoa da egunak behar direla emaitzak eskuratzeko eta prozedura garestia dela.

Bada, ikertzaileek frogatu dute infragorri hurbileko espektroskopia azkarragoa, merkeagoa eta jasangarriagoa dela kromatografia likidoa baino. Izan ere, emaitzak unean bertan eta merke lor daitezke, ez du erreaktibo kimikorik behar eta ez du hondakinik sortzen. Ikertzaileek azaldu dutenez, hala ere, oraingoz ezin du kromatografia likidoa ordezkatu, baina aukera emango luke zer emaitza lortuko diren aurrez jakiteko, baita soroan ere, uzta bildu aurretik. ●

Kostako ornogabeak Ozeano Bareko plastiko-uhartean

Ozeano Bareko mendebaldeko kostako itsas ornogabeek komunitate bat sortu dute Ipar Pazifikoko ekialdeko zurrumbilo subtropikaleko hondakin plastikoetan. Hondakin-multzo hori Ozeano Bareko plastiko-uhartearen izenez ere ezagutzen da, eta itsas zabalean dago. Ikertzaileek, baina, frogatu dute kostako itsas ornogabeen bizileku bihurtu dela, eta ugaltu ere egiten direla leku hartan. Komunitate neopelagikoa deitu diote.

Ikerketa egiteko, 105 hondakin plastiko flotatzaile jaso zituzten. Guztira, 484 organismo ornogabe identifikatu zituzten laginetan, eta haietatik % 80 kostaldeko habitatatetan egon ohi diren espezieak ziren. Kostaldeko espezieen kopurua, hala nola artropodoak eta moluskuak, normalean itsaso irekian bizi diren espezie pelagikoena baino hiru aldiz handiagoa izan zen.



Kostako ornogabeak itsas zabaleko plastiko-hondakinetan bizitzeko gai direla frogatu dute. ARG.: Limbah/Flickr/CC BY-SA 2.0.

Ikertzaileen esanean, jatorrizko espezieak gai dira hainbat urtean milaka kilometro egiteko hondakin plastikoetan, eta bizirik irauteko eta ugaltzeko. Hortik ondorioztatu dute, gainera, orain arte itsaso zabalean ez bizi izanaren arrazoia ez zela ekologikoa ez fisiologikoa, baizik eta ez zutela substraturik. ●